

Eskopeta finak egi-
ten dituzten tailer
txiki batera joaten
da Martin egunero.
Artisau lana da
beraiena, bezeroa-
ren neurrira egiten
dituzte enkarguak.

Martinek...

Kaxagin

izan nahi du

Zorionekoa da gure
laguna. Bera baino
zaharragoa den
mutiko batek lana
topatu du beste lantoki
batean. Errekaduak
egiteari utziko dio
Martinek eta ofizioa
ikasteari ekingo.

Egur lehor usaina da-
rion tailerreko gunera
doa. Eskarmentu
handikoa da bere
maisua, kaxak egiten
erakutsiko dio.



ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

a r m a g i n e n l a n a k

KAXAGINA, ¿ZER OTE DA HORI?

Intxaurrondoeko ohol motz
eta sendoekin lan egiten
duen arotz espezializatua da.

Armaginak egur zati
aproposa aukeratuko du
forma emateko,
eskopetaren baskulak eta
kañoiak doitu dituzte
ondoren.

Kaxagin edo Kaxagintza
izena hartzen dute artisau
hauek. Beraien esku dago
arma erabat amaitua eta
ondo lotuta lagatzea.

Kaxaginek armaginen
tailerretan egin izan dute lan
normalean, baina badira lan
hori baserrian egin izan
duten baserritarrak ere.

Antzinako gremio hau Eibartik
kostaldera bitartean kokatua
zegoen gehienbat, Ermua eta
Mendaron bereziki.



TAILERRA

Martinek kaxaginaren aldamenean ikasten du. Egurrezko bankada luze baten gainean daude arotzaren lanerako tresnak. Leihoek kalera ematen dute, lanerako argitasun handia behar dutelako.

Amantala lotu eta bere maisuarengana itzultzen da. Txukun pilatutako oholak, tindagai eta olio betetako apal ugari eta lehortzen ari diren kaxak dituzte inguruan, edozein lekutan.

Eskopetaren kaxa intxaurrondo eginda dago. Betidanik erabili izan da intxaurrondoa kaxak egiteko, material berriek ezin izan diote tokia kendu.

Mendeetan zehar landatu izan dira intxaurrondoak gure eskualdean. Orain hasi dira Ekialdeko Europatik egur mota desberdinak heltzen.



Armaginaren lanerako bankada. Tornuan, baraila batekin lotuta, eskopeta kaxa izango den egur zatia dago.

Erremintak

Armaginak erraminta ugari dauzka, tamaina ezberdinetakoak, eta lanak aurrera egin ahala bata edo bestea erabiltzen joaten da, premien arabera. Kaxaginek erabiltzen dituzten erremintak eskuzkoak dira, argindarrik ez zegoen garaian euren aurrekoek erabiltzen zituztenak bezalakoak.



Makurra, "S" formako zizel berezia



Gubixak



Mailua



Arraspa



Esku-zepilloa





1. irudia



2.irudia



3.irudia



4.irudia



5.irudia

PROZESUA

Lana mendian hasten da, lehendabizi zuhaitz aproposa aukeratzten dute eta. Askotan zuhaitz zaharra izaten da, ia lehortuta dagoena; gainera batzuetan kaxaginak berak botatzen du.

42 zentimetroko luzera eta 6 zentimetroko zabalerako oholak moztzen dira, egur-zan ederrak dituztenak baina adabegirik gabeak. (1. irudia)

Lehortzen utzi behar izaten dira, askotan 10 urtez, baserrian bertan lehenengo eta tailerrean gero. Kaxa guztiak dira desberdinak, bakarrak, arma bakoitzari, eta ez beste bati, egokitutakoak.

Jostunen antzera, artisauak neurriak hartzen dizkio bezeroari, katutik kanoiera erregela bat gainean ipinita. Tailer batzuetan ingerada markatzeko txantiloiak ere erabiltzen dituzte. (2. irudia)

Landugabeko intxaurrondoeko ohol batekin ekingo dio lanari kaxagileak. Ohola dornuarekin lotu (Armagintzaren Museoko ezaugarria), eta "San Jose" zerrarekin moztuko du neurrira. (3. irudia)

Ondoren, kaxan ahokatu beharreko metalezko zatiak marraztuko ditu egurrean. Baskula kaxa gainean jarri eta arkatzarekin bere profila markatuko du (4. irudia) oholaren bi aldeetan.

Hori egin eta gero, mailuarekin "makurra"ri kolpeak emanaz (mutur okerra duen zizela) aurrez markatutako inguruak jango ditu. Kaxagilea lima, trintxa eta gubia desberdinekin egurra husten joango da baskula eta baskula-buztana sartu ahal izateko adineko tartea lortu arte. (5. irudia)



Zizelkadaz
zizelkada,
kaxari forma
ematen dio
armaginak
Martinek adi
begiratzan
dion bitartean.



KAXA-AURREA



Eskopetaren kaxa-aurrea prestatzen irakasten dio maisuak Martintxori. Intxaurrezkoa da pieza hau ere, kañoi azpian kokatzen da eta eskua jartzeko balio du.

Kaxa-aurrea kaxaren antzera egiten da. Egur zatiaren gainean kaxagileak metalezko pieza markatuko du lehenengo.

Gubia eta mailuarekin kolpetxoak emanez egur ezpalak ateratzen joango da, metalezko pieza lasaierarik gabe ahokatzeko moduko tartea lortu arte.

Amaitzeko, kaxarekin egiten duen bezala, linazi-olioa emango dio, eta batzuetan, beharrezkoa denean, tindagaia, kotoizko trapu batekin.

Lixatzera ondoren, lizpapel latzarekin hasieran eta finago batekin gero. Prozesua hainbat aldiz errepikatuko du, egurraren zainak nabarmendu eta leun laga arte.

Amaitu da astea. Ostiral arratsaldea iritsi da, eta tailerra oso zikin dago. Martin da lantegira heldu den azkena, eta horrexegatik berak garbitu beharko du guztia. Erremintak txukundu eta erratzarekin tailerreko txirbilak jasoko ditu. Asteburua azkenean. Astelehenean jarraituko du gauza berriak ikasten.



TAILU ITZELAK



Oso enkargu berezia. Begibakarrentzako eskopeta, kaxan tortsio ikusgarria daukana.



Egurrezko ohol bat hartuta ekiten dio lanari kaxagileak. Batzuetan, lana artista batek amaituko du, eta berak landutako kaxa hori artelana izango da.

Bi aldetatik erliebean landutako kaxa. Sorluzen egindakoa da, eta Ramiro Larrañagak eman zion Museoari.



Tiro bakarreko eskopeta, landutako egurrezko kaxa duen Lefauchaux sistemako eskopeta. Fabrikatzailearen markarik gabekoa.

Atzekargako karabina, Victor Sarasqueta enpresakoa



Kaxaren lepoaren eta kaxa-aurrearen koskadurei esker arma ederrago geratzen da, eta, gainera, erabiltzaileak hobeto eusten dio eskopetari, tiro egitean iristatu gabe. Aparejuginek egiten dute lan hau, eta eurak izaten dira lana amaitua arma entregatzen dutenak. Lerro gurutzatuak zerra batekin egiten dira. Emakumeek egin izan dute lan hori, gehienetan bakoitzak bere etxean.

Egurra lantzen zuten kaxaginak arma laburrekin ere aritzen ziren. Abankargazko baketadun pistola honen kaxa esaterako.



Pistoidun pistola, Pedro Arangurenek 1857. urtean Eibarren egindakoa.

Lefauchaux sistemako eskopeta, Eibarren XIX. mendean "Victor Aramberri e hijos"ek egindakoa. Kaxa eta kaxa-aurrea landuak ditu.



Kaxa-aurrean ere egiten da koskadura.



Eibarren egindako eskopeta, kañoiak "Ygnacio Orbea, año 1856" inskripzioa dauka.

ARMAGINEN HIZTEGIA



*"Eskerririk beroenak Eibarko armaginei tailerrak ireki
eta beraien lanbidea erakustea gatik"*

Egur landua: xilografia ere esaten zaio.
Zura grabatzean datzan artea da.
Egurrean hutsuneak eta arrakalak
eginez irudiak osatzea da helburua.
Oso antzinatik datorren artea da, eta
lanabesa metal grabatzaileak
erabiltzen duenaren antzekoa da.
Intxaurrezko kaxetan paregabeko
lanak aurki daitezke.

Kaxa: fusil, pistola edo eskopetaren
atzeko parte, armari eusteko balio
duena.

Kaxa-aurrea: eskopetaren kanoiaren
azpian jartzen den egurrezko pieza.
Ezkerreko eskua jartzeko balio du.

Koskadura: egurraren gainean egiten
diren lerro gurutzatuak, eskopetak
eskuetatik irrist egin ez dezan. Zerra
berezia erabiltzen da horretarako:
limaz zerra-haginak tailatuta dituen
altzairuzko pletina izaten da. Hagatzko
bati lotua dago eta egurrezko
kirtenean sartzen da.

Makur: kaxaginek erabiltzen duten
erreminta berezia. Zizelaren antzekoa,
baina punta okerrarekin.

Ostiko: eskopeta kaxaren oinarrian
ipintzen den pieza, sorbalda jartzeko
erabiltzen dena.

Tornuzila: mota askotako piezak
eusteko ezinbesteko lanabesa da
armaginen tailerretan. Mahai edo
bankadari lotuta egoten da.
Armagintza Museoa irudia
da gainera.



Gehiago jakiteko... (beste iturri askoren artean)

Carmelo Urdangarin, Jose María Izaga: "12 oficios Armeros"
Gipuzkoako Bazkundera, Donostia, 2003.

Ramiro Larrañaga: "Museo de armas, Eibar". Gipuzkoako Foru
Aldundia, Armagintza eskola, Eibarko Udala. Eibar, 1984.

Serafin Basauri, Asier Sarasua: Eibarko Hiztegi Etnografikoa.
Eibarko Euskara Mintegia. Eibarko Udala, 2003

BESTE ITURRI BATZUK: Perico Iriondo, Rafa Cabello.

Martinek... kaxagin izan nahi du
Armagintza Museoa. 2012
Eibar, tailer-hiria. Eibarko Udala,

Testuak eta diseinua:
Jose Valderrey
Martintxoren marrazkia:
Jose Carreira.
Marrazkiak: Yulen Zabaleta.
Argazkiak: Jose Valderrey,
Armagintza Museoko Bilduma.



Creative Commons Legal Code
Aitortu-EzKomertziala--
LanEratorririkGabe
3.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>).
Testuak, marrazki eta argazkiak:
bakoitzaren egilea.

www.armia-eibar.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura saila

Departamento de Cultura



Gipuzkoako Foru Aldundia.
Diputación Foral de Gipuzkoa



Eibarko Udala
Ayuntamiento de Eibar